



2012KO APIRILAREN 13KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko apirilaren hamahiruan, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2012ko martxoaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HOGEITA ZAZPI MILA ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (27.088,50 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- C.A.F.-

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. enpresak idatzi bat aurkeztu du udal honetan. Idatzi horretan gerora GI-4491 errepideak izango duen ibilbideak hartuko duen lursaila emateko prest azaltzen dela adierazten da.

Halaber Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena izenpetzea planteatzen da. Hitzarmen horren baitan, Lazkaoko udalerrian C.A.F.eko enpresaren eremuan GI-4491 errepideak orain hartzen duen eta etorkizunean hartuko duen lursailen trukaketa egingo litzateke.

Honen aurrean eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- GI-4491 errepidearen ibilbide berrirako C.A.F.ek egindako lursail ematea onartzea.
- 2.- GI-4491 errepidearen ibilbide aldaketa egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetzekoa den hitzarmena onartzea.
- 3.- Alkatea ahalmentzea akordio hauek bideratzeko beharrezko dokumentuak izenpetu ditzan.



IV.- SAN PRUDENTZIO FESTEN EGITARAUA.-

Jarraian 2012ko San prudentzio jaien egitaraua eta bere aurrekontua aurkezten dira Tokiko Gobernu Batzarrera, bere onarpenerako.

Aurtengo San Prudentzio jaiak apirilaren 20an hasi eta maiatzaren 1 arte izango dira Lazkaon eta maiatzaren 5 eta 6an Lazkaomendin.

Jaien aurrekontua, guztira, LAUROGEITA LAU MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI EUROKOA (84.748 €) da.

Tokiko Gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako guztien aldeko bo-tuekin, 2012ko San Prudentzio jaien egitaraua eta aurrekontua, bere espedientean aurki-tzen direnak, onartzea erabakitzen du.

V.- TABERNA ETA TXOZNAK SAN PRUDENTZIO FESTETAN.-

Jarraian festetan irekitzen diren taberna eta txoznen gaia aztertu eta eztabaidatzen du Tokiko Gobernu Batzarrak.

Txozna jartzeko eskari bakar bat egon da, Iker Iruin Arrutik Txozna Batzordearen izenean aurkeztutakoa. Eskarian karpa bat jarri nahi dela adierazten da.

Bestalde lokaletan tabernak jartzeko eskari bakar bat egon da, Idoia Agirrezabala Navarro A.k Lazkaoko Ezker Abertzalearen izenean Areso 2ko behetan taberna jartzeko egindakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aurkeztutako eskariak aztertu ondoren, honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- Iker Iruin Arrutiri, N.A. zbkia. 72.451.507-A, Txozna Batzordearen izenean, txoznetarako karpa jartzeko baimena ematea.

2.- Taberna jartzeko baimen bat ematea egon den eskatzaile bakar honi: Idoia Agirrezabala Navarro, N.A. zbkia.: 72.478.905-V, Lazkaoko Ezker Abertzalearen izenean.

3.- Txoznak eta tabernak jartzeko ematen zaizkien baimenei jarraian adierazten di-ren baldintzak ezartzen zaizkie:

- Txoznen karpa jartzeko kokalekua barraken gunea eta ikastolaren tarteko gunea izango da.
- Txoznen karpa jarri eta kentzeko mugak apirilaren 17a eta maiatzaren 4a izango dira.

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Lazkao Txiki Musika Eskolari dirulaguntza.-



Lazkao Txiki Musika Eskolari, bere izenean aurrekontuan aurrikusitako dirulaguntzatik eta bere gastuei aurre egiten joateko, 4.100 €ko bigarren zatia ordaintzea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

Lazkaoko Beneditarren Artxibategia Fundazioari dirulaguntza.-

Lazkaoko Beneditarren Artxibategia Fundazioari bere izenean aurrekontuan aurrikusitako dirulaguntzatik eta bere gastuei aurre egiten joateko, 8.000 €ko bigarren zatia ordaintzea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

VII.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Lazkaon joan den otsailaren 5ean egindako eskolarteko eta Gipuzkoako federatu mailako kros txapelketarako Antzar Korrikalariak elkarteak egindako dirulaguntza eskaeraren aurrean, kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, lauhun (400 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

VIII.- UDAKO KIROL KANPAINA.-

Kirol Batzordetik Udako Kirol Kanpaina 2012 egitasmoa aurkezten da. Kanpaina hau ekainaren 25etik uztailaren 20ra bitartean burutuko da. Kanpaina honen aurrekontua hamabost mila zazpiehun eta hirurogeita hamasei eurotakoa (15.776 €) da eta ikastaroen diru-sarrerak eta Foru Aldundiko dirulaguntza kontutan izanda aurrikusitako defizita hiru mila lauhun eta hogetia hamar (3.430 €) eurotakoa da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, egitasmoa, bere espedientean dagoena, aztertu ondoren, Udako Kirol Kanpaina 2012 hau onartzea erabakitzen du.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hiru eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

